



# Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

## ***Euskal Antzerkiaren Dokumentazioa***

2014ko azaroak 20 eta 27

### **“Euskal antzerkiaren dokumentazio beharrak”**

2014ko azaroak 27, osteguna.

Xenpelar Dokumentazio Zentroaren egoitza. Subijana Etxea, Amasa-Villabona.

Arratsaldeko 18:30ean

Euskal antzerkiaren inguruko sortzaile eta eragileek dokumentazio alorrean dauden beharrei buruzko gogoeta eta mahai ingurua egingo dute, euskal antzerki sorkuntza eta garapenean lagundu dezaketen dokumentazio beharrak plazaratuz.

- 🍷 **Jaime Valverde.**  
Ikerlaria (Maite Agirre, Antton Luku eta Ander Lipusen antzerkigintza tesi-gai).  
[Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearen](#) dokumentazio arloa.
- 🍷 **Ixabel Etxeberria.**  
Ikerlaria eta euskal antzerkian doktorea (Piarres Larzabalen antzerkigintza).
- 🍷 **Mikel Martinez.**  
Antzerki eragilea eta antzezlea. [Tartean Teatroa](#).
- 🍷 **Oier Guillan.**  
Antzerki eragilea eta antzezlea. [Metrokoadroka Sormen Laborategia](#).

**Moderatzailea: Nere Erkiaga.** [Xenpelar Dokumentazio Zentroa](#).

Informazio guztia, [www.mintzola.com](http://www.mintzola.com) webgunean

## Mahai-inguruan zehar aipatutakoak

### Entzuleen artean iritzi-trukean parte hartu dutenak:

- Idoia Lopez de Gereñu. Antzerki eragilea eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteko kidea.
- Aizpea Goenaga. Antzerki eragilea eta antzezlea.
- Karlos Aizpurua. Mintzola Fundazioko Ikerketa eragilea.
- Eugenio Arozena. Antzerki eragilea eta biltzailea.
- Aritz Zerain. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko koordinatzailea.
- Itziar Elias. Antzerki eragilea eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteko eragilea.

### Agertutako gaiak eta iritziak:

#### Egungo egoera:

- **Dokumentazioaren sakabanaketa handia** dago: gehiena norbanako eta taldeen esku dago.
  - o Bilketa egitea zaila da: etxeetan dituztenak ez dute nahi utzi, zaila ikerketa egitea.
  - o Egin diren bilketa lanek elkarren arteko loturarik ez dute eta hutsune handiak daude.
    - Interneten erreferentzia garrantzitsuak daude baina modu sakabanatuan.

→ **Zentralizatu beharra dago: informazio guztia leku berean eskaini.**

- **Dokumentazio galera handia** dago:
  - o Aurretik egindako antzerkiaren galdera handia dago:
    - 1930-1960 bitartekoak. Bizirik dauden pertsonen ezagutza eta dokumentazioa bildu beharra dago.
    - Orain dela 20-30 urte inguru antzerki mota asko egin ziren, ez da inon bildu.
    - Bildu diren bideo euskarriak hondatzen ari dira.
  - o Egungo sorkuntzari buruz:
    - Grabazio asko egiten dira, baina ez daude antolatuta eta eskuragarri.
    - Antzezlan eta sortze-prozesu asko grabatu gabe gelditzen dira. Ahozkoa da, eta badoa.
  - o Testuaz gain antzerkiak uzten dituen aztarna guztiak behar dira eta maila horretan hutsune handia dago: bideo-grabazioak, kartelak, esku-orriak, ... edozein motatako dokumentuak bildu behar dira.

→ **Bilketa sistematikoa antolatu beharra dago, gaur egungoa eta historikoa biltzeko eta eskuragarri jartzeko.**

- **Ezezagutza, nabarmena da:**
  - o Oso ikerketa gutxi egiten da euskal antzerkiari buruz, eta gai asko daude aztertu gabe. Historikoak eta egungoak.
    - Ikuspegi testualetik ikertu izan da bereziki antzerkia, literatura balitz bezala.
    - Antzerkiaren taularatzea ez dago ikertuta
  - o Antzerkiaren irakaskuntzarako ezinbestekoak dira testuak eta batez ere bideoak. Ez daude eskuragarri.
  - o
  - o Ez dago transmisiorik: orain arte egindakoaren (tradizioa eta garaikidea) ezezagutza handia dago.
    - Orain dela 30-20 urte egindako lanak ez dituzte gaur egungo gazteek ezagutzen.

- Antzerki sorkuntza batzuk tradiziotik eta lehenago egin den esperimenez abiatzen dira sortzeko. Maila horretan, norbere kasa formatzeko egindako ahalegina egin behar zen orain dela 20 urte eta orain ere egoera berdina dute gazteek. Ez dago transmisiorako tresnarik.
- Euskal komunikabideetan egungo eszenaren ikuspegi orokorrik ez dago. Gaur egun gertatzen ari dena, edo lehendik eman dena eta orain beste modu batean ematen dena irakurtzen ez dakigu.

→ **Ezagutarazteko ahaleginak egin behar dira: transmisioa, ikerkuntza eta sustapena bultzatu behar dira.**

### **Dokumentazio egitasmoa abiatzeran, egungoa biltzetik hasi edo lehengoa biltzetik hasi behar da? Zein da lehentasuna?**

- A. Egun sortzen dena ezin da galdu.** Egungoa biltzea antolatu eta ekintzarako tresna bat sortu behar da, egungo antzerkigintzarentzat baliagarria, egungo jendearentzat baliagarria izango dena eta erreferentzia bihurtuz dokumentazio zaharragoen bilketa erakarriko duena:
- Egungo antzerkigintzarentzat baliagarria den tresna sortu, ez soilik memoriarako. Tresna praktikoa eta errealak, akziorako tresna bat, bere beharrezkotasuna berehala ulertuko dena.
  - Egun egiten den antzerkigintza transmititzeko lagundu behar du, eta baita historikoa eta tradiziozkoa.
  - Dokumentazio galera eten behar du:
    - Egun egiten dena grabatzeko ardura eta urgentzia transmititu behar du, egungoaren galera eteteko.
    - Sakabanatuta dauden funtsen bilketa erakarri behar ditu, historikoen galera eteteko.
  - Jasotakoa ezagutarazi behar du.
  - Interneten dagoena lotu behar du.
- B. Dokumentazio galera eten behar da.** Sakabanatuta dauden funtsak biltzetik abiatu, beharrezkoa baita, galera eteteko, eta zentroa ezagutarazi, egungo sortzaileek beraiek egiten duten lanak ekartzeko.
- Hego Euskal Herrian batez ere euskal antzerkiaren tradizioa askoz ere txikiagoa izan da eta 1930-1960 egin den antzerkia ez dago dokumentatuta, galtzen ari da eta orain behar da, geroago eginez gero benetan ere galdu egingo delako.
  - Zentroa ezagututa, egungo sortzaileek ekarriko dituzte beraiek egiten dituztenak (Eresbilen bezala)
- C. Berezko metodologia diseinatuta, biak egin ahal izango dira.** Metodologia bat sortu, berezkoa, oraingoa eta lehengoa biltzeko, antolatze eta sustatzeko balioko duena. Hori lortuz gero, egungo antzerkigintzari erantzungo dio, eta baita ere lehengo memoria berreskuratzeari ere bai.

### **Zentro espezializatua behar da**

- Sistema oso bat behar da, liburutegi batek ezin dio erantzun behar guztiei.
- Antzerki obraren prozesua eta ikuskizuna bera berreraikitzen lagunduko duen dokumentazioa bilduko duen sistema behar da, ikerkuntzan lagunduko duen dokumentazio egitasmoa.
- Antzerkiaren berezko dokumentazioa bildu behar da: Testua bera baino prozesua bera garrantzitsuagoa da, tradizio bat transmititzeko, jakintza bat transmititzeko, sortzaile berriengan eragina izan ahal izateko. Batez ere Ipar Euskal Herriko antzerkigintza ulertzeko beharrezkoa da.
  - o Baina antzerkiaren prozesuaren sortze edo ikerketa bera eragileek egin behar dute, eta informazio iturri guztiak ezingo ditu dokumentazio egitasmo honek eskaini. Mugak finkatu behar, egitasmo egingarria izateko.
- Leku fisikoa behar du, erreferentea izan behar da, bai bilketa egin ahal izateko eta baita ikus-entzunezkoen digitalizazioa eta kontsulta ahalbidetzeko.
- Gaur egungo egituren ezaugarriak gainditzen dituen egitasmoa da, berezkoa izan behar du, antzerki munduan zentralitatea lortuko eta behar duen espezializazioan sakonduko duena
- Egitura txikitik hasi daiteke, baina hasi beharra dago.

### **Zentro espezializatu horren ezaugarri batzuk:**

- Oinarrizko metodologia bat diseinatuko du
  - o Bilketarako
  - o Antolaketarako
  - o Ezagutarazteko
- Bilketa eragingo du: norbanakoen etxeetan dauden funts nagusiak bildu eta egungo euskal antzerkiaren bilketa antolatuko du, galerak eteteko. Erreferentziazkoa izan behar da, konfiantza sortuko du.
- Biltegi hutsa ez da izango: sustatzea, promozionatzea izango du lotuta. Maila ezberdinetan eragingo du.
- Antzerki mota asko daude, denen beharrak eta ezaugarriak kontutan hartuta eratuko da (amateurrak, profesionalak, esperimenterak, pastoralak, toberak, ....).
- Ikus-entzunezkoen tratamendua oinarri-oinarrizkoa izango du
- Erakundeen arteko zubi-lanak egin eta pautak jarriko dituen liderra izan behar da
  - o Liburutegi eta artxiboen arteko loturak egingo ditu, informazioa bateratzeko
  - o Unibertsitate eta ikerketa eragileekin harremanak izango ditu, ikerketa sustatzeko
- Internet bidezko atari bat eratu dezake, wikipedia erara, jendeak elikatu dezakeena

### **Eskuragarri jarri beharko dituen informazioa eta dokumentu batzuk:**

- Testuak: argitaratutakoak eta originalak
- Bideo grabazioak
  - o Antzerkia ondoen gordetzen duen euskarria da
  - o Sortzaileek ez dute behar kasu batzuetan (egiten ari diren antzerki motaren arabera)
  - o Transmisiorako edo esperimenterazioan sakontzeko, derrigorrezkoa da.
- Prentsa artikulua eta kritikak
- Argazkiak
- Lanen informazio erantsia: nork egin, nondik ibili ziren, antzezleen berri,...
- Eskuorriak eta afitxak
- Eszenografia maketak (Institut del Teatre)
- Itzulpenak
- Sariak

- Alde teknikoak eta ekoizpen datuak
- Talde eta pertsonen (sortzaile, antzezle, zuzendari,...) ibilbideei buruzko informazioa
- Formaziorako materiala (kontu teknikoak)
- Taularatze baliabideak, idatzizkoak eta ikusentzunezkoak
- Dramaturgien kontestualizaziorako dokumentuak (saiakerak, sortze prozesuari buruzko dokumentuak)
- Sortze prozesua bera jasotzen duten dokumentu guztiak

### **Egitasmo hau nola eta nork bultzatuko du?**

- EHAZEK egitasmo hau lehenetsuneko egitasmo du, egitasmo klabea baita euskal antzerkia sustatzeko, eta hutsune handia baitago maila honetan:
  - o Sakabanatuta dauden funtsen inbentarioa egiteko egitasmoa aurkeztu du eta hiru alditan ezezkoak jaso dira Eusko Jaurlaritzan. Ez dago dirurik helburu hau bideratzeko.
  - o EHAZEK egitasmo hau aurrera eramateko ahalegina egiten jarraitzeko asmo sendoa du.
- Lidergoa hartuta, aliantzak ere behar dira, aliantza-sare sendoa sortzea ezinbestekoa izango da. EHAZE elkargune nahiko anitza da, arte eszenikoetan arlo ezberdinetakoak elkar-topatzeko, sektorearen barnean sentsibilitateak biltzeko elkargune indartsua da. Baina kanpoan aliantzak aurkitu beharko dira.
- Zerbait sortu daiteke, elkartuz:
  - o Foru Aldundiko Liburutegiak dituen baliabideak eta Xenpelar Dokumentazio Zentroak edo Mintzolak dituen baliabideak erabilia sortu, eta martxan jarri daiteke.
  - o Martxan dagoen egitasmo sendo bati ezetza esatea zailagoa da proiektu bati ezetza ematea baino. Eta azpian egitasmo honek duen sustapeneko proiektua ikusita zailagoa izango da ezetza.
  - o Lurraldetasunaren arazoa ere hor dago eta hori beti da arazo handia.